



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: PERKUSIOA

2024-2-14

Nori zuzenduak?

Graduko Perkusio interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzenduak.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko otsailaren 7an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Perkusio interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko erreperitorio egokia

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

Jabi Alonso, Antonio Domingo, Lorenzo Ferrándiz, Javier Azanza

10:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo da.

11:00-12:00 Javier Azanzak tinbal eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

12:00-13:00 Lorenzo Ferrándizek marinba eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

13:00-15:00 Bazkaltzeko atsedena, gure ikasleek parte-hartzaileekin esperientzia partekatzeko aukera emango duena

15:00-16:00 Antonio Domingok bibrafono eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

16:00-17:30 Jabi Alonsok kutxa eta musltiperkusio eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

17:45 Musikeneko Perkusio Ensemblearen kontzertua

19:00 Jardunaldiaren amaiera.

Perkusio jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
dpto.vientopercusion@musikene.net